



## ◦ DEABRUAREN ABOKATUA ◦

# “Mikro-herrigintza da benetan landu behar duguna”

**Luix Barinagaerrementeria**  
**DOKAren sortzaileetako bat**

Sinetsi ez zuenik balego, Zuzenbide Fakultateko Ikasle Kontseiluko IAKo lehen lehendakaria izan zen.

SUSTRAI COLINA  
Argazkia: Batiste Ezeiza

**Sarri-k idatzia: “Abokatuek, beste ezer orduko eta diruaren truke, arrazoia nori eman erabakitzen dute”.**

Ikasle garaian zure etsai nagusiak epailea, fiskala eta beste abokatuak izango direla uste duzu. Praktikan, ordea, zure arerio nagusia zu zeu ez bazara, zure bezeroa izango da.

**Edozein defendatzeko prest zaude eta!**

Ez, hori argi daukat. Esaterako, printzipioz nahia-go nuke ertzain bat ez defendatu, nahiz eta egia den ertzain hori izan daitekeela aita, semea, bizilaguna, edo torturatua.

**Ertzain torturatu bat?! Presioak jota zaude, jendearen arazoak entzuteak kalte egiten dizu.**

Jendeak zakua, psikologoa eta laguna garela uste du, eta ez. Abokatuarengana edo epaitegira joatea ez da soluzioaren sinonimo. Epaitegiek ez dute ezer konpontzen. Ahal dela, epaitegietatik kanpo aurkitu behar dira benetako soluzioak.

**Abokatu batek hori esatea ere...**

Askorentzat epaitegira joatea erresidentziara joatea baino hotzagoa eta arrotzagoa da. Toga beltzak sortu zituztenean Matrix asmatuta zegoen.

**Abokatuei ere polizia etxera etortzen zaizuela ikusita...**

Konturatzen zara ez zarela ezer. Oheratzean etxeko atea giltzaz itxiko duzu, baina ate bat ez, dantzan dabilen folio bat da uzten duzuna.

**Zurekin eraman zituzten batzuek Joxemi Zumalaberen sententziaren folioak daukate atetzat.**

Oso arraroa da, ez naiz esplikatzeko gai. Amildetara salto eginarazi ziguten baina nik goma ona neraman eta besteek ez.

**Alegia, ez zinela Euskadi Gazteako esatari ohia izategatik libratu.**

Agian abokatu bakoitza baino gehiago gustatzen zait irratia. Abokatu hasteko partez irratian jarraitu izan banu askoz lasaiago biziko nintzatekeen. Ez nintzateke Euskadiagoa izango, baina gazteagoa bai.

**Oso “txatxi” geratu zaizu. Donostia bezala, funtsean.**

Donostia bere orbanak ezkututzen dakien gezur handi polita da. Ulertzen ez dudana da nola harrotzen den jendea estatuko pisu eta pintxo garestietakoak gurean daudelako.

**Donostiarrak izateaz harrotzen ez direlako agian? Denak zarete Antiguokoak, Egiakoak, Altxakoak, Amarakoak...**

Nik lasai asko esaten dut donostiarra naizela: “El bello de Easo”, kar, kar, kar!

**Egoera politikoa dagoen bezala egonda barre egitea ere...**

Oso zail jarri digute, eta gure buruari oso zail jarri diogu. Bakoitzak bere etxea ongi hornitzeko sasoi da. Iritsiko dira makro-herrigintzarako garaiak, baina uneotan, mikro-herrigintza da benetan landu behar duguna. ■